



Lanbide Heziketa Duala Euskaraz GIDALIBURUA



Ihdualaeuskaraz.eus

EUSKARAZ, BALIOA ERANTSI LANARI!



Aurkibidea

1. Zer da LH Duala euskaraz?

2. LH Duala euskaraz egitearen onurak

- 2.1. Ikaslearentzat
- 2.2. Lantokiarentzat
- 2.3. Ikastetxearentzat

3. LH Duala Euskaraz ezaugarriak

- 3.1. Lau aldagaiak
- 3.2. Modalitateak

4. Web ataria

5. Marka

6. Geomapa

7. Autodiagnostikorako tresna

8. Parte hartu!

LH Duala Euskarazek hurrengo GJH-ak hartzen ditu bere baitan:



Harremanetarako:

LANEKI ELKARTEA

☎ 943 376 532

✉ jakinbai@jakinbai.eus

🌐 www.jakinbai.eus
www.lhdualaeuskaraz.eus

1. Zer da LH Duala Euskaraz?

LH Dualak ikasketak konbinatzen ditu enpresa eta ikaste-teeetan, batzuen eta besteen arteko lankidetzaren bitartez. Ikasleek enpresan egingo duten formakuntzak lotura estua izan behar du heziketa-zikloko lanbide profilarekin eta programatutakoarekin.

Horrenbestez, enpresan egindako lan horiek, produktio-emaiza ez ezik, ikasketa bera ahalbidetu behar dute, bai eta, azken finean, zenbait gaitasun eskuratzea ere: Lanari dagozkion gaitasunak, lanbide-arloari dagozkionak eta enplegarritasuna hobetzeko bestelako zeharkako gaitasun erabilgarri batzuk.

LH Duala euskaraz eginda, ikasleak eleaniztasunean prestatzen dira eta lantokien lehiakortasuna areagotu egiten da.

2. LH Duala euskaraz egitearen onurak

LH Duala euskaraz egiteak, ikaslearen eta lantokiaren arrakastan balio gehigarria jartzen du. Euskaraz, balioa eransten zaio lanari!

2.1. Ikaslearentzat

Esperientzia: Ikasleek benetako lan-egoeretan ikasten dute eta lan-esperientzia handia lortzen dute.

Enplegarritasuna: LH Duala burutzen duten ikasleen enplegarritasuna areagotzen da. %70a dira kontratua lortu duten ikasleak.

Euskara baliokidetzak:

- Goi mailako ikasketen %50 euskaraz eginda: B2 baliokidetzak
- Erdi mailako ikasketen %50 euskaraz eginda: B1 baliokidetzak

Hizkuntza teknikoaren ezagutza lortzen da.

Talentua: Ikaslearen komunikazio gaitasuna hobetzen da, talentuaren ezaugarri bat gehiago lortzen da eta lan munduratzeko prestatuagoa egongo da.

2.2. Lantokiarentzat

Ezagutza: Pertsonak ezagutzeko eta hezteko aukera du enpresak.

Kualifikazioa: LH Dualak langile kualifikatuak prestatzen ditu, Euskal Herriko enpresen ekoizpen sarearen premietara egokituak, eta enpresetako prozesuetan eta kulturari ikasiak. Horrek enpresen lehiakortasuna areagotzen du.

Kudeaketa aurreratua: Lantokiak hizkuntzen kudeaketa aurreratua egiten du, lan taldearen giroa hobetzen da, zerbitzu hobea eskaintzen da.

Erreleboa: Esperientzia honek enpresako belaunaldien erreleboa errazten du.

2.3. Ikastetxearentzat

Informazioa: Informazio ezin hobea lortzen du, lan merkatuak behar dituen beharrei aurre egiteko.

Lotura: Enpresen eta ikastetxeen arteko harremanak estutzen ditu.

Erantzukizuna: Enpresen ESK-ko politikak (Erantzun Sozial Korporatiboa) laguntzen ditu.

3. LH Duala Euskaraz ezaugarriak

3.1. Lau aldagaiak

LH Duala euskaraz egiteko ezinbestekoa da ikasleak instruktore euskalduna izatea. Honetaz gain, beste hiru aldagai ere kontutan izaten dira.

1. Instruktoarea: Ikaslearen eta enpresan lana erakutsiko dion instruktorearen arteko harremana euskaraz izatea giltzarri da.


2. Harrera: Ikasleak enpresarekin izango duen lehen harreman ofizialean sumatuko du ikasleak enpresako hizkuntza-politika.

3. Hizkuntza-paisaia: Enpresako errotulu, informazio, dokumentu, aplikazio informatikoak... euskaraz izatea lagungarria da euskaraz lan egiteko.

4. Lantaldea: Horiek ere hizkuntza-paisaiaren parte dira, garrantzitsua da harrera egitean langile euskaldunak euskaraz aurkeztea.

3.2. Modalitateak

LH Duala euskaraz egiteko orain arteko modalitateak hauek dira: LH Dual arrunta (Lantokiko Prestakuntza modulua) eta LH Dual aurreratua (Duala eta espezializazioak). Halaber, gero eta Dual modalitate gehiago izango dira epe laburrean. Jarraian dauden infografiatan azaltzen da modalitate bakoitza.



LH DUAL ARRUNTA EUSKARAZ

Lantokiko Prestakuntza modulua

- Lantokian burutu beharreko derrigorrezko prestakuntza-programa da.
- 385 orduko iraupena izan ohi du (3 hilabete).
- Enpresak ez dio ikasleari ordaindu behar.
- Ikasleak ikastetxeak eginiko aseguruaz izango du.
- **Informazio gehiago:** lhdualaeuskaraz.eus

LAU ALDAGAI EUSKARAZ



- Ikasleak ezinbestean instruktore eskalduna izan behar du.
- Lau aldagai hartzen dira kontuan: Instruktorea eskalduna izatea (ezinbestekoa), harrera euskaraz egitea, hizkuntza paisaiaren %50 euskaraz izatea eta lantaldearen %50 euskaraz aritzea.

Euskaraz kontuan izateko momentu giltzarriak.

Instruktore eskalduna.

Instruktore-ikasle arteko komunikazio hizkuntza euskara.

LH Duala euskaraz 4 aldagaiak.

Autodiagnostiko tresna.

Laneki txostena.

*Dokumentu ereduak lanenpres eta lanpres gidetan. lhdualaeuskaraz.eus

Hasiera

- Enpresak eta ikastetxea harremanetan jarri eta eskaera egin.
- Lehenengo hitza euskaraz.
- Telefonoz edo idatziz.



Ikasle kopurua

- Kontrastatu ikasle kopurua eta adostu.
- Egutegia, ordutegia aurreikusi.

Datuak

- Enpresa-ikastetxea: Datuak eta informazioa trukatu.*
- Instruktorea-tutorea izendatu.



Hitzarmena

- Ikastetxea-enpresa bisitatu.
- Hitzarmena.*

Harrera

- Ikasleari harrera*: Enpresaren izaera (hizkuntza-plana, lan ohiturak, organigrama, segurtasun-neurriak, prozesuak, larrialdi-plana...).
- Egutegia-ordutegia, lan-esparrua, instruktorea, lankideak...



Enpresa egonaldia

- 385 ordu.
- Ikaslearen koaderno.*
- Instruktorearen koaderno.*

Ebaluazioa

- Tutorearen ebaluazioa.*
- Instruktorearen ebaluazioa.*
- Enpresaren asetasun maila.*

Amaiera

- Balorazioa eta hobekuntzak.

	ENPRESA	IKASTETXEA
URRIA	Enpresaren beharrak aztertu eta inguruko ikastetxeak dituzten Heziketa Zikloak aztertu.	Bilera: LANeNPRES gida aztertu eta plana egin.
AZAROA	Enpresaren eta ikastetxearen arteko hitzarmena aztertu eta egokitu.	Dokumentazioa aztertu eta egokitu.
ABENDUA	Enpresak ikastetxeei ikasleak eskatu, enpresako hizkuntza-egoera kontuan izan.	Informazioa eta datu-eskaera bidali.
URTARRILA	Ikastetxearekin aztertu zein ikasle dagoen LH Dual arrunta egiteko moduan.	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresak aztertu eta datuak jaso. • Enpresak aztertu zein inktore euskaldun dituen.
OTSAILA	Ikaslearentzako jardunaldia antolatu: Euskararen garrantzia laneratzean eta enpresa-egonaldian.	
MARTXOA	<ul style="list-style-type: none"> • Bilera: Enpresa eta ikasleak esleitu. • Enpresari diru-laguntzen berri eman. • Ikasleak egin ditzakeen lanak zehaztu. Ikaslearen, tutorearen, instruktore/tutorearen koadernoak egokitu. 	
APIRILA	Ikaslea enpresan jarri: Ikasleari harrera euskaraz, ahal bada.	Ikaslearen eta enpresaren datuak hezkuntzako aplikazioan sartu.
MAIATZA	Ikaslearen egoera aztertu.	Tutoreak ikaslearen jarraipena egin.
EKAINA	<ul style="list-style-type: none"> • Ebaluazioa: Ikaslearen enpresa-egonaldiaren bukaera, dokumentazioa banatu eta jaso. Euskararen trataera eta estatistikak aztertu. • 4 aldagaien datua berrikusi. Hezkuntzako aplikatibotik Laneki txostena deskargatu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikaslearen jarraipena egin. • Enpresa-egonaldietako ikaslearen estatistikak atera.
	<ul style="list-style-type: none"> • Bilera: Hobekuntzak planteatu datorren ikasturterako. 	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresa-egonaldiko memoria egin, hobekuntzak eta Dual-eko proposamena planteatu. • Ikasleari diploma LH Duala euskaraz markarekin.

LH DUAL AURRERATUA EUSKARAZ

Dual modalitateak eta espezializazioak

Informazio gehiago:
lhdualaeuskaraz.eus

MODALITATEAK

2 urteko modalitatea:

- 2 urteko planen helburua da ikasleek zikloan barneratzen dituzten gaitasunak indartzea; 2.400 eta 2.800 ordu arteko iraupena dute osotara.
- **1. ikasturtea:** Ikastetxea bakarrik.
- **2. ikasturtea:** Ikastetxea eta enpresa.

3 urteko modalitatea:

- 3 urteko planen helburua da ekoizpen prozesu konplexuak direla eta enpresek dituzten beharrei behar bezalako erantzuna emango dien espezializazio bat eskuratzea; 3.400 eta 4.700 ordu arteko iraupena dute osotara.
- **1. ikasturtea:** Ikastetxea bakarrik.
- **2. eta 3. ikasturteak:** Ikastetxea eta enpresa.

KONTUAN HARTU BEHARREKOA

Deskribapena

- Lanbide Heziketako tituluaren identifikazioa.
- Aldekideen identifikazioa.
- Lanpostuaren identifikazioa.
- Ordutegi-banaketa eta egutegia.

Diseinua, planifikazioa, jarraipena eta ebaluazioa

- Enpresan eta ikastetxean garatuko den programazioa.
- Ikastetxeko eta enpresako tutoreen aldetik ikasleak artatzeko plana.
- Ebaluaziorako sistema ezartzea.

Konpromisoa

- Ikasleak baldintzak eta ezaugarriak ezagutzen dituela ziurtatzen duen konpromisoa, idatziz eta sinatuta.

Lau aldagai euskaraz

- **Ikasleak ezinbestean instruktore euskalduna izan behar du.**
- **Lau aldagai hartzen dira kontuan:** Instruktorea euskalduna izatea (ezinbestekoa), harrera euskaraz egitea, hizkuntza paisaiaren %50 euskaraz izatea eta lantaldearen %50 euskaraz aritzea.



HASIERA

Administrazio-izapideekin hasi baino lehen, ikastetxeak eta enpresak LH Dual proiektu edo plan bat prestatu beharko dute elkarrekin ikaslearentzat. Baimena izapidetu ondoren, ikastetxeak Eusko Jaurlaritzaren aplikazioan sartuko ditu planaren datuak, ondoren Hezkuntza Sailaren onespina jaso dezan.

JARRAIPENA

Prozesuan zehar, ikastetxeko tutoreak eta enpresako instruktoreak jarraipena egingo dute, ezarritako LH Dual plana behar bezala betetzen dela zaintzeko.

EBALUAZIOA

Prozesuan zehar, irakasleek hartuko dute ikasleak ebaluatzeko ardura, enpresako instruktorearen ekarpena ere aintzat hartuta.

Laneki txostena aplikaziotik deskargatu eta ebaluatu.

EGIN BEHARREKO URRATSAK

1. Lanbide Heziketa Dualaren ereduari interesatuta dauden enpresak harremanetan jarri beharko dira EAEko Lanbide Heziketako Ikastetxe publiko edo itunpeko-privatuetako batekin, edo bestela, enpresa-elkarte batean jakinarazi dezakete proiektuan parte hartzeko interesa dutela.
2. Programa datorren eskola-ikasturtean nola abiatu planifikatu ahal izateko, enpresak zer lanbide-profil lortu nahi duen jakinarazi beharko dio ikastetxeari eta Enpresak dituen instruktore euskaldunen berri eman.
3. Ondoren, ikastetxeak hautagai posible batzuk proposatuko dizkio enpresari.
4. Enpresak bere eskakizun eta aurreikuspenetara gehien egokitzen den ikaslea hautatuko du.
5. Ikastetxeak eta enpresak ikaskuntza-heziketa-laneko plan bat zehaztuko dute ikaslearentzat. Planak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren baimena beharko du.
6. Enpresak eta ikastetxeak tutore bana izendatuko dute; lan kontratu edo beka bat formalizatuko da ikaslearekin, eta hitzarmen bat ikastetxearekin.

Lehen ikasturtea	Enpresei informazioa bidali.									Enpresari LH Duala Euskaraz dauden dirulaguntzez informatu.		Ikaslea enpresan lanean jarri, eta jarraipena egin.
	IRA.	UR.	AZA.	ABE.	URT.	OTS.	MAR.	API.	MAIATZA	EKAINA	UZTAILA	
					Ikasleei aurkezpena.					Ikasleen eta enpresen datuak sartu.	Ikasleen esleipena.	
										• Proiektua egin.		
Bigarren ikasturtea eta espezializazioa	Ikaslea lanean jarri, eta jarraipena egin.											
												<ul style="list-style-type: none"> • Ebaluazioa, Memoria, Estatistikak. • LH Duala euskaraz 4 aldagaiak berrikusi. • Hezkuntzako aplikatibotik Laneki txostena deskargatu. • Ikasleari diploma LH Duala euskaraz markarekin.

Euskara kontuan izateko momentu giltzarriak.

LH Duala euskaraz 4 aldagaiak.

*Dokumentu ereduak lanenpres eta lanpres gidetan. lhdualaeuskaraz.eus

Instruktore euskalduna.

Autodiagnostiko tresna.

Instruktore-ikasle arteko komunikazio hizkuntza euskara.

Laneki txostena.

4. Web ataria

LH Duala Euskaraz informazioa lhdualaeuskaraz.eus web atarian dago. Bertan aurkituko da ikasleentzat, ikaste-txeetako edo lantokietako ordezkariarentzat informazio baliagarria, baliabideak, praktika onen bilduma eta bestelako informazioa.

5. Marka

LH Duala Euskaraz marka Lanbide Heziketako Sistema osatzen duten ikasle, ikastetxe eta lantokiei zuzendua dago.

LH Duala euskaraz egiten den lantokiek eta ikastetxeek euskarrietan (web orri, dokumentazio, gidaliburu, salmenta liburu, ikasleen diploma...) erabiltzeko da.



Euskaraz lan egiteak produktu edo zerbitzu profesionaleri balioa erantzen diela nabarmendu nahi du markak, eta aldagai horrek, lehiakorragoak eta lurraldearekin lotura handiagoa izaten laguntzen diela tokiko lantokiei.

6. Geomapa

Geomapan jasotzen dira LH Duala euskaraz egin den lantokiak, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Bilaketa aurreratu baten bidez lurraldea eta lanbide-arloa uztartzen dira, LH Duala euskaraz egiten den lantokien bilaketarako.

Geomapa, LH-ko ikastetxeen eskura dago, LH Dualeko koordinatzaileen eta tutoreen eskura, ikasleei lantokien egonaldiak euskaraz topatzeko.

7. Autodiagnostikorako tresna

Autodiagnostiko tresna 30 galdera laburrez osatutako galdetegi bat da, lurraldeko sare profesionalerako edozein lantokik 5 minututan bete dezakeena.

Modu horretan, lantoki bakoitzak duen euskara maila ezagutu daiteke eta hobetzeko gomendioak jaso. Autodiagnostiko tresna esteka honetan eta QRan duzu. jakinbai.eus/autodiagnostikoa



8. Parte hartu!

Zure lantokian noizbait Lanbide Heziketako ikasleren batek euskaraz egin badu LH Duala, eman zure lantokiaren izena argitaratzeko baimena. Horretarako joan QRko formulariora. Lantoki erreferente bezala posizionatzeko aukera duzu, egindako lana aitortu eta gizarteak zure ekarpena ezagutzeko aukera.



LH Duala euskaraz

1.477

lantoki bano
gehiago
Bizkaian

2.700

lantoki bano
gehiago
Gipuzkoan

316

lantoki bano
gehiago
Araban